

**3/ 2019 INSTRUKZIOA (E- 2/ ETKZ- 3/ TLB- 2)****GAI A: BIZIKLETAK. “KLISKATZE-ARGIAK” ERAMATEAGATI KO SALAKETAK.**

Bizikletak gero eta gehiago erabiltzen dira lokomozio-bide gisa, eta horren ondorioz, haien gidatze zuzenarekin lotutako hainbat zalantza ari dira sortzen erabiltzaileen artean. Trafikoa kudeatzeko ardura duten administrazioak, aipatutako dudak jasota, behartuta daude konpontzera, dagozkien interpretazio-irizpideak ezartzen kasuz kasu.

Esate baterako, bizikletek eraman behar duten argi-motari buruzko gaia sortu egin da; bereziki, azaldu da ea onartu ahal diren “kliskatze-argiak” bizikleta batekin zirkulatzerakoan; izan ere, gero eta gehiago ari dira ugaritzen txirrindularien artean, ohiko argi finkoen lekuan.

Indarreko araudia azterturik, Zirkulazioko Erregelamendu Orokorraren (azaroaren 21eko 1428/2003 Errege Dekretua) 98.1 artikulua xedatzen ditu argiak erabiltzeko beharrari buruzko arau orokorrak: *“Eguzkia sartzen denetik irten arteko orduetan zirkulatu ari diren ibilgailu guztiek eta tuneletatik, azpiko pasaguneetatik eta «tunel» seinalea (S-5) duten bide-zatietatik zirkulatu ari diren ibilgailu guztiek, eguneko edozein ordutan dela ere, piztuta eraman behar dituzte atal honen arabera dagozkien argiak”*. Eta testu bereko 99.1 artikulua ere, modu zehatzean ezartzen du posizio-argien erabileraren beharra aipatutako kasuetan, baita ikuspena nabarmen gutxituta dagoenean ere, eguraldiaren edo ingurumenaren baldintzen eraginez.

Bestetik, Ibilgailuen Erregelamendu Orokorrak (abenduaren 23ko 2822/1998 Errege Dekretua) 22.4 artikuluan bereziki arautzen du bizikletek nahitanahiez izan behar izango dituzten argiak gauzez, “tunel” seinalea duten bide-zatietatik, edo eguraldiaren edo ingurumenaren baldintzen eraginez ikuspena nabarmen gutxituta dagoenean zirkulatu ahal izateko: aurreko eta atzeko posizio-argia, eta atzeko katadioptrikoa (eta gurpilen erradioetan eta pedaletan katadioptrikoak eraman ahal izango dituzte).



Artikuluaren hitzetatik ezin da ondorioztatu argiak derrigorrean finkoak esan behar direla; aldiz, argi finkoak exijitzen dira Ibilgailuen Erregelamendu Orokorraren 15.2 artikuluan, motordunen ibilgailuen, atoiien eta erdi-atoiien baldintza teknikoak arautzen direnean: *“Ibilgailuetako argiak ezin dira keinukariak edo intentsitate aldakorrekoak izan...”*.

Murrizketa hori ez zaie aplikatzen bizikletei, lege-testu bereko 22 artikuluan ikusten denez. Hortaz, “kliskatze-argiak” izateagatik horregatik ezin da hartu trafikoko aurkako arau-haustetzat.

Beste alde batetik, bizikletak eta beste ziklo batzuk eta horien atalak eta piezak merkaturatzeko eta zerbitzuan jartzeko eskatzen diren betekizunak ezartzen dituen maiatzaren 9ko 339/2014 Errege Dekretuaren V. Eranskinean xedatutakoa kontutan hartu behar da: horretan, bizikleten argiek bete behar duten intentsitate-maila arautzen da, ikuspen ona bermatzeko eta itsualdiak sahiesteko.

Beraz, argi finkoak eraman beharrean, “kliskatze-argiak” daramatzen bizikleta bat gidatzea ezin dela arau-haustetzat jo ondoriozta daiteke, baldin eta intentsitate-mailaren lege betekizunak betetzen badira, eta horrexegatik ezin da ekintza hori salatu, trafiko eta bide-segurtasunaren araudia urratzeagatik.

Vitoria-Gasteiz,

Trafiko Zuzendaria

Sonia DÍAZ DE CORCUERA RUIZ DE OÑA